

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak enpresa guzti askok bezala, oinarrizko baliabide motak izan beharko ditu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, finantza-baliabidea eta giza baliabidea.

Lehenik baliabide fisikoen barruan, lokala sartzen da. Honen kokalekua erdigunekoa edo hortik gertu izan beharra dago, ahalik eta jende gehien erakartzeko. Dendarekin batera hor barruan ditugun altzariak, ordenagailuak eta teknologia guztia kontuan hartu beharra dago.

Honekin jarraituz, baliabide intelektualak lortzea zailenatarikoa izaten da eta gure enpresaren barnean saltzeko abilezia (Carlaren eskutik) edo ideiak sortzeko ahalmena (Itziarren eskutik) eta talde bat gidatzeko ahalmena (Endikaren eskutik) aurkitu dezakezu.

Finantza-baliabideak, enpresa batentzat baliabide mota garrantzitsuena da. Hau da, aurrezkiak enpresak aurrera joateko behar duen erregaia da eta honen barruan aurrezkiak aurki ditzakegu. Aurrezki horiek diru laguntzen, produktuaren salmentaren, akordioen bitartez lortzen dira.

Azkenik giza baliabidea dago eta honen barruan sartzen da bakoitzak enpresaren barnean duen funtzioa edo rola, hau da, gure betebeharrak. Gure baliabide intelektualak kontuan hartuta bakoitzak bereak ditu.

Itziar, koaderno teknologikoaren diseinuaz arduratzen da sortzeko ahalmen handia duelako eta departamentu honetan bera bakarrik egiten du lan eta gainera enpresaren Instagramaz eta webguneaz arduratuko da.

Pablaren enpresaren barneko ardura enpresaren kontuak maneiatzea da, hau da enpresaren ekonomiaz arduratzen da. Hau da, produktuaren prezioa ezartzen du, kostuak aztertzen ditu... Honako hau da bere funtzioa kontuekin abila delako.

Endika enpresaren arlo guztiak kordinatuko ditu eta gainera Gasteiz barneko banaketaz arduratuko da. Hau da, bere furgonetarekin banatuko ditu koadernoak Gasteiztik zehar.

Azkenik, Carla telefonoaren bitartez, bezeroekin haien arazoetaz hitz egin beharko du eta Gasteizko dendan ere lan egingo du, koaderno teknologikoa saltzen. Azkenean, jendearekin erlazionatzeko erraztasuna duelako.